

Million Dollar Business IV.lehiaketa ospatu da

2010/05/13

Maiatzaren 6an Million Dollar Business Inter-Campus-etako IV.lehiaketa ospatu da, simulazio tablero baten bitartez.

Simulazio honen helburua, negozio generiko baten bisioa lortzea da. Partehartzeari esker, ikasleak gai izan dira:

- Negozio baten arlo ezberdinen konposaketa ikusi eta nola lan egiten duten taldeka emaitzak lortzeko
- Hazkunde iraunkor eta errentagarritasuna lortzeko erabiltzen diren parametroak ulertu eta landu
- Enpresan hartu beharreko erabakien "kausa-ondorioak" eta bere eraginak ulertu
- Negozioen eragilea eta finantzen eraginaren bisioa lortu
- Merkatura eta bezeroarenganako orientazioaren garrantzia ulertu

Parte hartutako ikasleen kopurua 40koa izan da (Oñati eta Bidasoako Campusa).

Finantza eta Marketing arloak landu dira bereziki; lizentziaturan jasotako ezaguerak praktikan jarri dituzte.

Lehiaketa 8 enpresen artean gauzatu zen, eta emaitza, jasotako ranking baten arabera lortu zen.

Enpresa irabazlea "Bostak Bat" izan zen, eta honako ikasleek osatu zuten: Nahikari Alijostes, Izaskun Mendizabal, Ane Garitagoitia, Lara Bautista y Ainhoa Errandonea.

Argazkian, enpresa irabazlea, simulazioa gidatzeaz arduratu zen Joseba Goikoetxea irakaslearekin batera.

